



## Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria  
2019ko uztaila · 354. alea

TOKIKOM

**ARRE APOLO!  
ORAIN  
HERRIKOAK**





# PIL-PILEAN 354

2019ko uztaila

Azaleko argazkiaren egilea:  
Fernan Oregi.

## Aurkibidea

- 4 **Bote prontuan** Mikel Leunda
  - 6 **Begira** Berenjena eguna
  - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak
  - 14 **Argazki bidez** San Andresko jaiak
  - 18 **Erreportajea** Gune Musik
  - 22 **Kirola** Mendi lasterketa, harrijasotze txapelketa eta pelota
  - 24 **Kultura** Broken Brothers Brass Band
  - 26 **Historia** Danborrada
  - 28 **Sakonean** Txistulari taldea
  - 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
  - 3 **Neuretik** Roman Olaizola  
*Azken-aurrekoak*
  - 16 **Gutunak** Soraluzeko Herrirako  
Partaide Ohiak *47en aldeko elkartasuna*  
Ander Oñate Ezenarro *Eskutitza soraluzetar guztioi*
  - 16 **Hausnarketa** Beranduago ixteko baimena
  - 17 **Zir(r)ika** P.G. *Oporrak behar ditut*



**Pil-pilean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea**  
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

**Erredakzioa**  
Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

**Publizitatea**  
publizitatea@pilpilean.eus  
**Zuzentzailea**  
Leire Ginea

**Diseinua**  
Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)  
**Maketazioa**  
Oier Larreategi

**Inprimategia:**  
Gertu Koop.  
**Banaketa:**  
Pil-pilean Ekoizpena  
**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000  
**Tirada:** 2.100 ale



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA**  
**POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko**  
**UDALA**

# Azken-aurrekoak



ROMAN OLAIZOLA

**D**iarrio Vasconi begira zera ikusi dut: aita-alabak ahuspez itota Rio Bravon (Mexiko-AEB). Haurrari pardela nabari zaio praken artetik eta bere besotxoak aitari heltzen dio, nahiz eta dagoeneko ez dion ezertarako balio. Bizi hobe bat lortzeko zuten ametsa ibaian gelditu da. Ezin diot eutsi bizi naizen gizarte honek duen jarrera miserablea salatzen gogoari. Duela gutxi zera irakurri nuen Le Monde Diplomatiquen, Libiako basamortuan pertsonekin trafikatzan dutenek bertan behera uzten dituztela migranteak, hobe esanda hiltzen uzten dituztela, haurrak ere bai, mendebaldearen agindupean diharduten zaintza-patruilen aurrean.

Denok daukagu gogoan mediterraneoko hondartza batean itota azaldu zen haur haren irudia. Zer gehiago behar du gizarte gaixo honek halako sarraski baten aurrean erreakzionatzeko? Nik ez daukat irtenbiderik, baina gero eta argiago daukat zenbait jarrera aldatu beharra daukadala, daukagula.

Gizarte honek, pentsionisten, langileen, LGBTQ+ kolektiboen eskubideak defendatzen dituen gizarte honek, noiz defendatuko ditu haien biziak salbatzea beste helbururik ez dutenen eskubideak? Burura datorrit Lord Byronen esana: “zenbat eta gehiago ezagutu gizakiak, orduan eta gehiago maite dut nire txakurra”. Animalien eta pertsonen artean alderik bada, hori da “gizatasuna”.

Nire lanean harreman estua daukat beste herrialdeetako jendearekin, haien errelatoekin, bizipenekin eta dramekin, eta badute pelikula bat baino gehiago egiteko beste mami. Bizirauteko eta ingurukoak aurrera ateratzeko borrokaren adibide dira. Horregatik, entzuten ditudanean, ditugunean, komentario xenofobo horiek, historiaren ignorante horienak, kaleko migranteenganako errespeturik adierazten ez dutenak... ezin ditugu onartu, ezin dugu beste aldera begiratu.

Victor Orbanek Hungarian edo Mateo Salvini Italian, eta baita espainiako politikan sartu berri diren beste zenbaitek ere, baliatzen dute kolektibo hori, mespretxuz azken-aurrekoak izendatzen dituztenena, boterera heltzeko; migranteari, heldu den azkenari begiratzen dion jende hori, ezjakin hutsa dena, kontsolatzen dena jakinda badela bera baino okerrago bizi denik. Jende horrek migranteak zigortzen ditu; gorago daudenak zigortu ezin dituelako, eta haien beldur delako.

Uste dut aspaldi heldu zela garaia jarrera horiek salatzen, eta W. Churchilek nazismoari buruz esandako hitzak parafraseatuz, borrokatu (jarrera horiek) muinoetan, kaleetan, plazetan, ibaietan... eta ez etsi sekula. Izan ere, kideekin enpatizatzen gaitasunean datza animalien eta pertsonen arteko aldeak.

## ENPATIZATZEKO GAITASUNEAN DATZA ANIMALIEN ETA PERTSONEN ARTEKO ALDEAK

# Mikel Leunda

KULTURA, HIZKUNTZA-POLITIKA, HEZKUNTZA ETA GAZTERIA SAILETAKO TEKNIKARIA

---

**TESTUA:** UBANE MADERA

ARGAZKIA: FERNAN OREGI

---

Mikel Leunda (Ordizia, 1969) 1998tik da Soraluzeko udaleko langilea. Kultura, Hizkuntza-politika, Hezkuntza eta Gaztedia sailetako teknikaria da eta dituen zereginen artean dago jaien koordinatzaile izatea, 2003az geroztik.

## **2003ra arte zeinek antolatzen zituen jaiak?**

2003an ardura hartu nuenean jaien kordinatzailea Jose Ramon Zabala zen eta ni laguntzailea. Gero bera joan zen ardurak lagatzen eta neu hasi nintzen, eta orain Zabala arduratzen da zezenen ikuskizunez, besteak beste.

**Baina jai -batzordea ere badago. Zeinek osatzen du?** Edozein etor daiteke, baina praktikan osatzen dute udal ordezkariak, Galtzagorriak, Gune Musik kolektiboak eta orain arte Danborradaren batzordeak. Norbanako moduan ez du inork modu jarraituan parte hartzen. Egia da inoiz ahalegina egin dela norbanakoak gonbidatzeko eta 2007an horrela antolatu ziren jaiak, guk gonbidatutako 20 lagunek lagundu ziguten programa prestatzen.

**Igarri zen aldaketarik?** Bai, programan sartu ziren herritarrek eurek proposatutako hainbat ekintza: azeituna-hezurren lehiaketa, toka, penalti-lehiaketa, herri bazkaria... Bi urtez antolatu ziren jaiak horrela, aberasgarria izan zen; gainera, jaietan ere ibili ziren laguntzen. Baina jendea kantsatzen joan zen eta lagatzen. Ze jaietan uste baino jende gehiagok laguntzen du ekintzetan: zubiko eta frontoiko egitarauan lan handia egiten dute, Plaza Zaharreko txosnan, orain arte danborradan, herri-ikuskizunean, pilotan... eta jendeak disfrutatuta ere egin behar du. Zaila da inplikazio altuagoa eskatzea.

**Edozelan ere, jai-batzordera etorri ez arren, jendeak egiten ditu eskaerak, ezta?** Bai, badaki zeintzuk diren proposamenak trasladatzeko bideak. Eskaerak egiten dituzte, aintzat hartzen ditugu, haien bideragarritasuna aztertzen dugu eta ahalegintzen gara gauzatzen. Horren adibide, iaz Mus lehiaketa berreskuratu genuen, eta aurten umeen krosa eta zezensuzkoa. Aurten, eskaera

bati erantzunez, umeendako zezentxoak jarriko ditugu. Beraz, parte hartzeko hainbat modu badaude, jai-batzordean aritzeaz aparte, eta jendea animatuko nuke proposamenak egitera. **Zuri zerk ematen dizu arreta?** Herri-kantaldiak, esate baterako. Beste leku batzuetan ez dut horrelakorik ikusi eta herrian bertan 30 lagun izatea jaietan halako espektakulu ikusgarri eta polita prestatzen, pentsatzen dut leku gutxitan izango dela. Bestalde, azken urteotan bi danborradak desagertzeak pena eman dit. Baina gizarteak daraman bidearen sintoma da. **"Kanpotar" baten begietatik, zelako jaiak ditugu Soraluzen?** Oso jai txukunak eta orekatuak direla pentsatzen dut, jendearengandik jasotzen dudana da oso jai politik izaten direla; iaz "ederrak" izan zirela entzun nuen; maskulinoegiak direla ere esaten digu zenbaitek. Ea hori konpontzen dugun pixkanaka. Ikuskizunen aldetik, mugen barruan ahalegintzen gara aukeraketan ahalik eta mimorik gehien jartzen, proposamenak aintzat hartzen eta jai-egitarau orekatua, denondakoa izaten, gustu desberdineko jendearendako aukerak dituena. Aspaldiko urteetan Jai-batzordean koordinatzen gara hiru jai-guneetako antolatzaileak: zubia, Gune Musik eta Udala. Eta ahalegintzen gara (uste dut lortzen dugula) bakoitzak bere autonomiaren barruan herriari begirako egitarau orekatua osatzen. Ditugun baliabide ekonomikoekin zaila dugu Ken 7, Berri Txarrak moduko taldeak jaietara ekartzea. Egin daiteke. Baina horretarako beste gauzaren batzuk kendu beharko genituzke edo aurrekontua handitu. Modan dagoen edozein musika taldek, gutxienez, 12.000 euro eskatzen ditu eta guretzat zaila da hori ordaintzea ekitaldi bakarrarengatik. Izan ere, 60.000 euro ditugu Santa Ana eta Andramari jaietarako. Andramarietan 12.000 euroko gastua egiten da, azpiegitura orokorretan beste 10.000 euro. Beraz, ekitaldietarako 40.000 euro ditugu. Eta aseguruetan, Gizarte Segurantzian, BEZean, SGAEn... geroz eta gehiago gastatu behar izaten dugu. Eta dugunarekin betetzen ditugu lau egun.



## Berenjena eguna

**ARGAZKIA:** FERNAN OREGI.

**TESTUA:** PAULA ALONSO.

Lehenengo aldiz ospatu da aurten Berenjena eguna. Plaza berrian botatako txupinak eman zion hasiera eta Hernaniko Zutik elektrotxaranga herria dantzan jarri zuen eguerdian. Bingo eta guzti izan zen frontoiko bazkarian, eta ondoren, jolasak, aproposak bazkal ostean ez lokartzeko. Arratsaldeko poteoa Maider Arregi eta Jokin Bergara bertsolariek girotu zuten eta egunari amaiera emateko, DJ Iraultz eta Amaia izan ziren Gaztetxean, gaua animatuz. Soraluzeko gazte-talde batek egindako lanaren emaitza izan zen Berenjena eguna eta festa berri horren arrakasta uneoro igarri zen kaleko zein herritarren arteko giroan.





# Gazta-eta Txakolin-dastatze eguna

Soraluzeko Egotzako, Elgoibarko Mausitxako eta Mallabiko Axelekuko gaztak probatzeko aukera izango da uztailaren 23an, 18:30ean

Iluntzean, 18:30ean hasi eta ordu eta erdiz, "eskualdeko gaztagintza eta txakolina ezagutzera emateko eta baserriarren lana eta produktuak balioan jartzeko asmoz" gazta-eta txakolin-dastaketa eguna antolatu du Soraluzeko Udalak, Debemenekin, Debabarreneko Landa Garapen Elkartearekin elkarlanean.

Hiru gazta-mota probatu ahal izango dira martitzenean Antzokian: Soraluzeko Egotza baserriko ahuntz gazta, Elgoibarko Mausitxako ardi gazta eta Mallabiako Axelekuko behi gazta.

Gaztari laguntzeko Mutrikuko Sagarmina txakolina ere izango da dastagai.

Dena doakoa izango da.



Egotzako gazta.

## Egileak bertan

Martitzeneko ekimena aurkezpenarekin abiaraziko dute, azalpen orokorra emanez. Ondoren hasiko da dastaketa. Antzokian bertan izango dira gazta eta txakolin egileak eurak ere, nork bere produktuari buruzko xehetasunen berri ematen.

## Sariak, luntxa eta dantzaldia

Itxaropena Erretiratuen Elkartean martitzenean hasiko dituzte jaiak. 17:00etan mus, briska eta tute txapelketetako sariak banatuko dituzte, otarrak eta edari-botilak. Ondoren, luntxa izango dute: txorizoa, tortilla eta gazta menbrilloarekin. Eta arratsaldea borobiltzeko, Quintanillak musika jarriko du eta dantzaldia izango da.



lazo sari-banaketa.

## 60.-70. hamarkadako musikarekin girotuko du plaza Sunken Wheels taldeak

Crazy Wheels Band eta Sunken Ship arteko fusiotik sortutako taldea da Sunken Wheels. Zapatuan, uztailaren 20an, eskainiko du kontzertua Plaza Zaharrean, 20:00etan. 60.-70. hamarkadako bertsioak joko dituzte; Juan Fernandezek esan duenez, country, blues, rock estiloko kantuak izango dira, The Allman Brothers, Dawes,

Gary Clark Jr. eta antzeko taldeenak. Ordu eta erdiz jardungo dute Ina Arriolak, Iosu Arriolak, Joanes Inurrietak, Mikel Saiz de Rozas bilbotarrak eta Juan Fernandezek, "jaietan giroa ipintzeko, jendeak disfrutatzeko eta halako musika estiloak ezagutarazteko, jendeak ez du-eta horretarako horrenbesteko aukerarik".

## Elkarrekin kantuan jarduteko

Martitzenean, 12:30ean abiatuko dira kantukalejiran Plaentxia Kantuaneko 35 lagun pasa. Plaza Zaharrean hasi eta Kalebarren, Gaztelupe, Gila, Santa Ana eta Arrano ibilbidea egingo dute. Ohiko abestiekin batera, aurten danborradarik ez dagoenez, bertako abestiak ere abestuko dituzte. Espero dute bidean kantari gehiago ere batzea.





lazko herritarrak, Galtzagorriak eta Marras zubian, kanoikadaren ondoren.

# Iaz moduan, jaiak hasteko kanoikada

Korner Moreak egingo du jaietako pregoia, eta ondoren argazki herrikoia aterako dute, "erasoen aurkako argazki herrikoia"

Datorren eguazten iluntzean, 19:00etan, Korner Morea Elkarre Transfeminista arduratuko da jaien hasierako pregoia botatzeaz. Ohi denez, udaletxeko balkoitik partekatuko dute mezua

pregoilariek; ondoren, eta, iaz moduan, kanoikada jaurtiko dute Zabala anaiek udaletxe aurretik, jaiei hasiera emanaz. Orduantxe lehertuko da festa zubian, eta abiatuko da Galtzagorrien txaranga. Une

horretan elkartuko dira herritarrak, Korner Morea deituta, "erasoen aurkako argazki herrikoia" ateratzera.

## Sahieski pintxoak eta txox-a!

Jaiaren hasiera borobiltzeko, 19:30ean Eusko Labeleko parrilleroek saiheskia eta sagardoa partituko dute Plaza Berrian. Estrainekioz bisitatuko dute Soraluze eta estreinaldi goxoa iragarri du Oriotik bertaratuko den Jose Inazio Atorrasgastik, Euskal Parrillak enpresako kideak: "Lehenengo aldiz noa, baina badakit seguruena bueltatu egingo naizela, ze jendeak gustura hartzen ditu gure produktuak. Eramango ditugu Basetxerri enpresako 80 kilo saihieski, ikatzean erreta emateko.

18:00ak ingururako bertaratuko gara, eta ordubetez egongo gara saiheskia prestatzen. Gero, pintxo modura emango dugu saiheskia ogi zati batekin. Horrekin batera, Astigarragako Bereziartua sagardoa ere eramango dugu barrikan, 80 litro. Txotx! egingo dugu sagardotegian bezala, eta giro ederra sortuko da".

## Goizeko hamaiketako elkarre gastronomikoen eskutik

Aspaldiko ohitura sanoari eutsiz, jaietako eguneroko hamaiketako udalerriko elkarre gastronomikoen kontura egingo dute herritarrek.

Santiago egunean hasita, goizero, 11:00etan izango dira anbulatoriopean, kazola bete salda bero dutela eta txorizo egosia gertu, batzuek baita okela egosia ere, eskean doanari



laz salda eta txorizoa ematen.

hamaiketako gozoa partitzen. Hiru elkartetako "sukaldarizerbitzariak" jardungo dute zeregin horretan

## Txandakatuz

Izan ere, kaleko zazpi elkarre txandan-txandan prestatzen dute hamaiketako jaietan, jai bakoitzean hiruna elkarre. Udalak 250 eura ematen die bakoitzari, elikagaiak eros ditzaten, eta gainerakoaz arduratzen dira elkarre gastronomikoetako lagunak.

# Duo Plaentxiri eskerronez

Aurten hil den Jesus Urizarren eta harekin batera Duo Plaentxi osatzen zuen Jose Luis Badiolaren kantuak plazaratuko dituzte Santiago eguneko herri-ikuskizunean. Urizarren familia eta Badiola bertan izango dira.

Hego-Ameriketako doinuek Plaza Zaharra hartuko dute jaietako lehen egunean, aurten herri-ikuskizunean herriko kantariak Duo Plaentxiren kantuak interpretatuko dituzte-eta, 23:00etan hasita, bi ordu pasatxoko jaialdia izango da.

## "Ona gizona"

Domentx Uzinen gidaritzapean, Mikel Hernandez, Ines Laskurain, eta Abel Olaizola ari dira aurtengoa antolatzen, eta ukitu musikaletik harago joango den ekimena izango dela azpimarratu du Olaizolak: "Oso festibal polita izango da, hunkigarria, malko bat baino gehiago isuriko da. Guretzat Jesus zen mucho Jesus. Abesbatzan ere kantatu zuen 2010etik-edo, tenorea zen. Haren hileta-elizkizunean abestu egin genuen Plazentziako koroak eta Elgoibarko koro parrokiak. Han bertan jaino zen omenaldiren bat egiteko ideia. Oso lagunak ginen. Korukideen artean laguntasun berezia daukagu, kuadrilla da gauza bat eta korua da beste bat, koruarengatik kuadrilla saldu egiten dugu. Gainera, Jesus zen oso pertsona ona. Gizon ona, oso laguna, oso kariñosoa denekin, adar-jotzailea, eta denei laguntzeko prest. Harreman berezia genuen abesbatzakook berarekin. Eta orokorrean, Duo

Plaentxik merezi duelako egingo dugu haien omenezko kantaldia, Plaentxiako izena eroan dute Euskal Herri guztian zehar".

Kantaldiaz aparte, oroigarria ere emango diete "Soraluzeko herriaren izenean".

## Artista ugari

Musikari-lanetan honako artistak ariko dira: Domentx Uzin, Jon Basauri, Aimar Bengoa, Xabi Bengoa, Ines Laskurain, Mikel Hernandez eta Elsa Berrueta.

Abeslariak, berriz, honakoak izango dira: Ugaitz Catalan, Andoni Calles, Sebas Hernandez, Maite Inurrieta, Ane Ugalde, Eider Varela, Ioritz Aizpitarte, Myriam Goenaga, Ioritz eta Trio Plaentxi (Jon Basauri, Domentx Uzin eta Andoni Calles). Haiekin batera, Jose Luis Badiolak Aitor semearekin interpretatuko ditu hiru kantu, abesbatza ere izango da eta baita Eibar Kantuan-eko Los Veracruz ere. Ikuskizuna Ane Ugaldek eta Abel Olaizolak aurkeztuko dute.

**"PLAENTXIA IZENA ERAMAN DUTE EUSKAL HERRI GUZTIAN ZEHAR, HORREGATIK OMENALDIA"**



Urizar eta Badiola.

## Rekinto berezia

Urtarrilaren 7an hil zen Jesus Urizar, 69 urte zituela. Ezagun egin zen Mexikoko eta Hego Amerikako doinuak abestuz, Hasieran Nubay hirukotearekin (1965), 1988tik aurrera Duo Plaentxirekin, eta azkenik, Basaur hirukotearekin 2015etik aurrera.

## Instrumentu kutuna

Donostiako Los Pumas taldeak oparitutako rekintoaren doinuak zituen Urizarrek ikur. 2007an argitaratu zuten Duo Plaentxiren kantu ezagunenekin osatutako CD-a: *Veracruz, Flor silvestre, La flor de la canela...* Hori bai, Urizarren beraren kantua *El Pajaro Chogui* zen. Oso gustuko zuen hura kantatzea. Bada, jaialdian atzera ere entzungo dira doinuok, oraingoan Jesus Urizarren eta Jose Luis Badiolaren lagunek abestuta.

# Bals dantzaldia erraldoiekin

3,6-4 metroko lau erraldoik eta beste lau kilikik erakustaldia egingo dute Santiago egunean, 13:00etan Kontzejupetik abiatuta

Buztintxuriko Erraldoi eta Kilikien konpartsako kideek kalejira-dantzaldia egingo dute uztailearen 25ean, erdigunean.

Iruñeatik etorriko den taldea 13:00etan abiatuko da Kontzejupetik eta bi ordu inguruz jardungo dute kalez kale lau erraldoi eta kilikirekin. Hala adierazi du Asier Rodriguez, Buztintxuri konpartsako presidenteak: "Kalejiran irten baino lehen, erraldoiak kalean ipiniko ditugu, jendeak ikus ditzan, eta nahi duenak eurekin argazkiak atera ditzan. Ondoren, kalejiran irtengo gara, eta geldiuenean baltsak dantzatuko ditugu. Egia esan, jendea oso gustura etortzen da gu ikustera, egiten ditugun dantzak ikusgarriak izaten direlako".



Iruñeko erraldoiak Zumaian.

## Lau metro ingurukoak

Izan ere, eta izenaren izenaren jabe direnez, erraldoi handiak ekarriko dituzte Nafarroatik: "Geldi daudenean 3,6 metro altu dira, eta jasotzen ditugunean, berriz, 4 metrorainoko altuera hartzen

dute". Ezinbestean, kamioian ekarriko dituzte erraldoiak Iruñeatik Soraluzera. Rodriguezek esplikatu duenez: "Bi zatitan desmuntatuta eramango ditugu. Erraldoi bakoitzeko hiruna lagun bertaratuko gara, beste lau lagun kilikiekin eta hiru gaitero, Ezpelur taldekoak. Oso jende gaztea da, 16-26 urte bitartekoak gehienak".

Erraldoiak baserriar itxurakoak dira, aitona-amona bikote bat eta seme-alabak.

Kilikiek, berriz, haien "lana" beteko dute, eta puxika eskuetan hartuta, ipurmasail bat baino gehiago berotuko dituzte.

## Bi pelikulatan


Iruñeako konpartsa hau lehen aldiz etorriko da herrira. Baina, Gipuzkoan ibilitakoak dira lehen ere, baita pelikulak grabatzen ere: "Aurten Azpeitian izan gara, Beasainen, Zarautzen eta Zumaian. Gainera, Handia filmean azaltzen gara eta Segovian ere izan ginen, beste pelikula baten grabazioan parte hartzen: Linewalker".

## Autotxokeak bueltan datoz, eta zezen-mekanikoa ere izango da

Iazko hutsunearen ondoren, aurten atzera ere autotxokeak izango dira jaietan. Uztailearen 23rako Erregetxean izango dira, bertaratuko diren gainontzeko barrakekin batera. Eta aurten berritasunak daude zentzu horretan, ze lapiko txikia barik, zezen-mekanikoa ekarriko dute. Aurten Wipe-out-ik ez da izango, iaz

autokotxeen partez etorri zen eta.

Osterantzean, beste berritasunetako bat barraken prezioa izango da: 2 euro (iaz 1,80). Lau bidaiia erosita, berriz, 6 euro da prezioa (1,50 euro bidaiia bakoitza). Uztailearen 28an, Umeen Egunean, erdi-prezioan izango dira barrakak, euro baten.



Barrakak Erregetxean, iaz.



Nagusien Danborrada, iaz.

# Danborrada gidari berrien zain

Danborradako bartzordeak konpromisoa hartu du material guztia gorde eta zaintzeko, antolatzaile taldea berrosatu bitartean

Itziar Agirre danborrada antolatzen aritu da orain arte eta egoera zein den azaldu digu: "Aurten ez dago danborradarik, jende nahikorik ez dagoelako. Baina ez dugu baztertzen beste urteren baten egotea. Nahiko genuke horretan norbait hastea. Jendea penaz badago, hutsunea igartzen bada... baliteke datorren urtean norbait animatzea".

## Etenik barik 22 urtean

Are gehiago, balizko antolatzaile berriei laguntasuna emateko gertu baino gertuago daude danborradako batzordekideak: "Lagunduko genuke taldeak martxa hartu arte, eta lehenagoko antolaketa taldetik ere badago norbait antolatzen jarraitzeko gertu".

Itziarrek dio, bien bitartean, danborradaren materiala ondo zainduta egongo dela: "Asko


zaindu da, eta zaintzeko konpromisoa hartu da, ulertzen dugulako herriarena dela. Norbaitek horien beharra balu, lagako litzaioke eta gero batuko genuke. Hori dena edukitzeak kostu handia izan du, bai ekonomikoki, eta baita denbora aldetik ere. Adibidez, Elgoibarkoek laga izan digute materiala, kostu barik, eta guk eurei ere bai".

Izan ere, jantziak, musika ekipoa, danborrak... material asko dago danborradak urtetan erabili duen lokalean gordeta, gidari berriak etortzeko zain.

1997-1998tik eten barik antolatu da danborrada herriko jaietan. 2017an laga zioten umeen danborrada egiteari eta aurten, berriz, nagusia egiteari. 22 urteren ondoren, aurtengoak, bada, Sarriegiren doinu bako jaiak izango dira.

## Umeendako zezentxoak

Barikuan, Santa Ana egunean, nagusiendako zezenekin batera, aurten umeendakoak ere ekarriko ditu Mutrikuko Arno ganadutegiak. "5-6 hilabetekoak dira, eta 6-8 bat eramango ditugu. Normalean 10-15 urte bitarteko umeak ibiltzen dira haiekin jolasean. Soraluzekoak ere animatuko nituzke!", dio Arno ganadutegiko Andoni Mugertzak.



Gaztetxoa zezentxoarekin.

## Zezensuzkoa berreskuratuta

Zezenekin eta zezentxoekin batera, zezensuzkoa ere izango da Santa Ana gauean. 23:00etan ibiliko dira halako bi, Galipotetik irtenda, Santa Anan, Plaza Berrian eta Kalebarrenen gora eta behera. Ikuskizun laburra izango da berau, ohi denez, adarretako sua emendatu arte iraungo du-eta, 10-15 bat minutu.



Galtxagorri jai batzordeko kideak. EGOITZ UNAMUNO.



RkeR elektrotxaranga izako jaietan.



Ttun Ttun Brigade bergararrak.

# Galtxagorrien egitaraua

Galtxagorri jai batzordeak egitarau zabala prestatu du jaietarako, batez ere musika arloari dagokionez. Askotariko musika estiloak entzun ahalko dira zubian: rocka, punk-a, trikitixa, rapa, trapa, funky-a...

Gazteek 12:30ean ekingo diete jaiari, txosnagunean txupina jaurtita. Ostean, bertsolariekin potea egingo dute eta 15:00etan elkarrekin bazkalduko dute zubian. Balsa jeitsiera ere iragarri dute, baina izen-ematea motel samar doa eta zalantzan dago egingo den.

Gauean, rock eta punka izango dira nagusi. Lau taldek joko dute, baina dudarik barik,

A Tuti Plain talde soraluzetarra izango da kuriositaterik gehien piztuko duena, maketako kantak aurkeztuko baitituzte. Ondoa izango dituzte The Claytons eta Balarrasa aramaioarrak eta No Limits arrasatearrak.

## Eguenean trikitia

Eguenean, arratsaldeko 19:00etan, futbolen txapelketa

egingo da zubian eta, gauean, erromeria izango da, Fan & Go talde zarauztarrak girotuta. Gaupasa eguna izango da.

## Barikuan debagoiendarrak

Azken-aurreko gauean, Arrasateko Facta (oi! estiloko musika taldea), Bergarako Barne Guda punk-rock taldea eta Ttun Ttun Brigade "estilo deskribaezina" duen taldea ariko dira.

## Zapatuan barietatea

Azken egunean izango da musika eskaintzarik bariatuenena. Arratsaldean RkeR elektrotxaranga girotuko ditu kaleak eta gauean musika estilo ugari entzungo dira: Sigerubanen rapa eta trapa, Egurra ta kitto azpeitiarren roick-a, Cronopioz kataluniarren funkya eta hip hopa eta Arrasateko Libertad condicionalen punkrocka.

# Auzolanaren jaia

---

**TESTUA:** EGOTIZ UNAMUNO.

**ARGAZKIAK:** FERNAN OREGI ETA E. UNAMUNO.

---

Hogeitamaka urte dira San Andresen hiru eguneko jaiak antolatzen hasi zirela. Garai hartan, gazte zirenen ekimenez, ordura arte egun bakarrekoak ziren jaiak hiru egunekoak izatera pasatu ziren eta elkarteak izan zen horretarako erreminta nagusia, geroago elkarrekin berritu eta egituratu zutena, bazkietza-sistema baten bitartez. Urte guztiotan, San Andresko jarduna elkarte horren bueltan antolatu da, eta bi ezaugarri nagusi izan ditu: auzolana eta euskara. Asmatu dute ekimenak auzolanean eta euskaraz antolatzen eta halaxe egiten jarraitzen dute hogeita hamar urte eta gero. Aurtengo jaiak izan dira horren erakusgarri nagusia. Bejondeizuela eta urte askotarako!





## GUTUNAK

### 47en aldeko elkartasuna

#### SORALUZEGO HERRIRAKO PARTAIDE OHIAK

2011ko urriaren 20an, ETA erakunde armatuak iragarri zuen bere jardun amaitua behin betiko etengo zuela. Egoera horrek, hainbat eragile sozial eta politikok bultzaturiko ekimenekin batera, ateak irekiko zizkion euskal gatazkaren konponbideari eta bakeari, eta berarekin garai politiko berria ekarri zuen.

Itzaropena nagusitu zen jendartean, urte luzetako gatazkari behin betiko irtenbidea emateko ateak parez pare ireki baitziren. 11/13 Auzian epaituko gaituzten 47 herritarrok, beste milaka euskal herritarrekin batera, konbentzimendu osoa genuen preso eta iheslarien egoerari irtenbidea ematea zela egin genezakeen ekarpenik

positiboena benetako elkarbizitza eta bake eszenatoki iraukor bat eraikitzeko.

Zoritxarrez, kontrako norabidean doazen hainbat ekinbide ere jasan dugu (eta jasaten jarraitzen dugu) Euskal Herrian, sufrimendua betikotu, zauri berriak ireki eta preso eta iheslarien afera betikotzeko helburu garbiarekin. Horien artean kokatzen ditugu 11/13 Auzian epaituko gaituzten herritarren aurkako ekinbide judizial eta poliziala. 47 euskal herritar epaituak izango dira datorren irailetik aurrera eta, guztira, 601 urtetako zigor eskaerari aurre egin beharko diote.

Irailaren 14an manifestazioa egingo da Bilbon, auzipetuei babesa adierazi eta bertan behera laga dezaten eskatzeko. Babes ekonomikoa azaldu nahi duen herritar orok laguntza emateko aukera izango du

webgunean edo ondorengo kontu korrontean:

LABORAL KUTXA ES82 3035 0057 9205 7005 9033

Auzipetuen manifestua eskuragarri dago <https://11-13makroepaiketa.eus/> webgunean.

### Eskutitza soraluzetar guztioi

#### ANDER OÑATE EZENARRO

Aupa Soraluze! Ta gora San Andres auzoko jaiak!

Betiko legez, aurten ere, San Andresko jaietan giro paregabea sortu da eta jendetza bildu da. Bada, ez nuke aipatzeke laga nahi, guk, aurten ere, iazko antzera, oso gaizki pasa dugula.

Zapatuan, aspaldian gure bidelagun fidela izan den Xinai, erretiroa hartutako 13 urteko txakur txiki eta zaharra, gurpilpean geratu zen betiko,

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: [aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus)

## HAUSNARKETA

### Beranduago ixteko baimena tabernei

Berenjena egunaren harira, eta hainbat tabernarik aurkeztutako eskariari jaramon eginez, Udalak erabaki du urteko 15 egunetan arautegiak dioen ordua baino bi ordu beranduago ixteko baimena ematea tabernei. Neguan goizeko 04:30ak arte eta udan 05:00ak arte. Baimena urteko jai egun nagusietan izango da: herriko jaietan, Gaztañerretan, Gabonetan, Berenjena egunean...



LAURA SUAREZ  
TABERNARIA

"Niri oso ondo pentsatzen zait, bai, bai. Ze urtean zehar ez da egoten ezer, eta, orduan, berdin da. Baina egun berezi horietan, herrian zerbait badago, bada, dagonean aprobeztatu egin behar dugu, noski".



## ZIR(R)IKA

## P.G. OPORRAK BEHAR DITUT

kotxe batek haren burua zapalduta. Batzuk plazan jaiaz gozatzen zebiltzan bitartean, beste batzuk gure txakurtxoak odol putzutik atera eta lurperatzen jardun genuen.

Espero dut aurten pasatutakoak bihotza eta zentzua duten pertsonengan eragitea, eta arazoengatik inguruan hausnartzeko bide ematea; izan ere, jaietan eta jaietatik kanpo hainbat egoera jasanezinekin ari gara borrokan: kotxeak gehiegizko abiaduran dabilta, elurra, landareak eta setoak akabatzen dizkigute, eta lapurtu, iaz katakume bat lurperatu behar izan genuen...

Espero dut etorkizunean elkarlana eta errespetua ardatz hartuta, asmatuko dugula halakorik ez errepikatzeko neurri egokiak hartzen eta ondoren behar bezala betearazten.



**MAITE GARMENDIA**  
GAZTEA

"Nik uste dut herriarendako eta herriko gazteendako aukera ona dela Eibarrera joan beharrean edo beste herri batera mugitu beharrean. Herrian bertan gastua egin eta lagunekin denbora gehiago pasatzeko herrian gelditzen gara. Eta hori ondo dago"



**GORKA SUDUPE**  
GAZTEA

"Gazteondako ordutegi hori oso ondo dago, aukera ematen digulako herrian luzaroago gelditzeko eta bertako tabernetan disfrutatzeko, kanpora joan beharrean. Gainera, horrela ez dugu autorik hartu beharko".



**REGINA MAIZTEGI**  
TABERNARIA

"Ondo. Gogoratzen dut gaztetako denboran ez zegoela ordutegirik, eta ibiltzen ginela ordu txikiak arte, eta ze bizitza zegoen herrian. Orain, berriz, zenbat jende joan behar izaten den kanpora festa giroa aurkitzeko. Ea horrela lortzen dugun Soralezeko beherakadari buelta ematea".

# Rapa eta zuzeneko teknoa Gune Musiken

Gune Musik jaialdiak zortzi urte beteko ditu aurten eta programazio berezia izango du. Lehen aldiz, rap emanaldi batek abiatuko du tekno-jaialdia eta ostean, C-System DJ-ak gidatuko du gau-giroa. Uztailaren 27an izango da (zapatua), arratsaldeko 18:30etik aurrera.

Testua: **Egoitz Unamuno.**  
Argazkiak: **Fernan Oregi.**

**A**skok ezetz uste arren, tekno musikak ere badu bere bihotza eta Soraluzen aspaldiko urteetan bihotz hori taupaka mantentzeko ahaleaginean diharduenetako bat da Mikel Aparicio DJ Apa. Musika elektronikoa barru-barrutik bizi du eta DJ lanak egitearekin batera, hasieratik parte hartu du Gune Musik jaialdia antolatzen.

## Rapa eta zuzeneko teknoa

“Aurten apustu oso arriskutsua egin dugu, beharbada, Aitor Hondarena baino arriskutsuagoa: C-System. Bera da gure aurtengo kartelburua. Zuzenekoak egiten ditu. Ekoizle famatua da eta tekno industrial oso ona egiten du. Melodia azido asko ditu, oso azkar doa, bonbo apurtu asko ditu... Berezia da. Granadatik dator. Aldamenean oso ekoizle ona du, Horacio Cruz. Lehenengo aldia da zuzenekoak ekartzen duguna eta ez dakigu jendeak zela hartuko duen. Berak bere sintetizadore, erritimokutxa eta teklatuarekin sortuko du musika. Lehenengo aldia da Gipuzkoara datorrena eta espero dugu gustatzea.

Gainerako DJak dira kolektibokoak, bailarakoak: Purple Boyz Debako bi gazte dira, Levin Eibarkoa, eta, herrikoak, Orlando, falta ezin zena, eta ni, Dinnamickal.

Jaialdia arratsaldeko seiretan hasiko dugu, rap kontzertuekin. Ikusi dugu rapak jendea erakartzen duela eta bailaran atera direla hainbat rapero fama ona dutenak, beraz pentsatu dugu aproba egitea: Polo Puesto (Soraluze-Eibar), Deskonozido (Deba), Renk C.A. eta A.



White. Lehenengo rap kontzertua izango da herrian. Nahi diegu aukera bat eskaini eta jaialdiari beste ikutu bat eman”.

### Soraluze tekno musikaren mapan

“Elektronika munduan dagoen gauzarik txarrena da kompetentzia. Aukera duenak aldamenekoa zapaltzen du eta horixe izan zen Gune Musik sortzeko arrazoi nagusia: gure artean borrokan ibili beharrean, elkartu eta indartsuagoak egitea. Kosta egin da, batez ere, ikuspuntu eta estilo ugari daudelako. Baina, tira, zortzi urte pasatu dira eta, dagoeneko, nik uste, egitasmoa egonkortuegin dela, eta indartsu gaude. Urteotan gorabeherak izan dira, baina azken urteotan gure apustuak gero eta indartsuagoak dira. Iada ez gara konformatzen ondo pintxatzearekin, begiratzan dugu zein den artistaren ibilbidea, agentzia... Poliki-poliki nibelak gora egin du. Lehen aldiz Aitor Ronda ekarri genuen urtea inflexio puntu bat izan zen guretzat. Edizio hartan 1.000 pertsona batu genituen. Izan da orain arte batu dugun jende kopururik altuena.

Azken batean, lortu dugu Soraluze tekno musikaren mapan kokatzea. Jendea etortzea Errioxatik, Kantabriatik, Nafarroatik... eta gelditzea giroagatik. Hori guretzat da lorpenik handiena”.

### Estigma gainditzen

“Gune Musik Kolektiboa osatzen dugu Deba bailarako DJak: Deba, Arrasate, Eibar eta Soraluzekoak, baina badira antolatzaile moduan jarduten duten herriko pertsonak ere, esaterako, Aritz Ramirez.

C-System DJa.

**AITOR RONDA EKARRI  
GENUEN URTEA  
INFLEXIO PUNTUA IZAN  
ZEN. 1000 PERTSONA  
BATU GENITUEN.**

**GUNE MUSIK  
KOLEKTIBOA OSATZEN  
DUGU DEBA  
BAILARAKO DJ-AK:  
DEBA, ARRASATE...**



Mikel Aparicio eta Aritz Ramirez.

egiten du elektronika bere garaian izan zena izan zelako, baina azken batean gauza bera gertatzen da taberna guztietan. Punkarekin ere hori gertatu zen, estigmatizatu egin zen, desfasearekin eta drogekin lotu zelako”.

### **Txitxarrorik Sonorara**

“Nik esango nuke teknoaren inguruko giroa asko aldatu dela. Orain dela hamar urte diskotekak zeuden herri askotan eta Txitxarroa astebururo goraino betetzen zen. Gaur egun, itxita eta salgai dago. Elgoibarko Guass, Bergarako Jam... Orain, patxanga edo regetoiak, popak, musika komertzialak baztertu egin du eszena elektronikoa.- Orain, areto nagusiak hirietan daude. Bilboko Sonora da erreferentzia nagusienetakoa. Noizean behin, faltan botatzen dut larunbat gauetako eszena hori: banoa Txitxarrora edo Elefante Blanca edo Guasera... Hori igarri egiten da. Orain bailaran ez dago ezer. Gure Leku taberna Arrasaten, hori baino ez.

Soraluzekoaz gain, Deba bailaran jaialdi bakarra dago Soraluzekoak beste urte dituen, Ermukoa. Jaialdi horretan 2.000 pertsona inguru batzen dira. Beste nibel baten daude”.

### **Tabernetatik Ibizara**

Ondorengo lerroetan, Mikel Apariciok musika elektronikoaren barruan egin duen ibilbidearen berri eman digu:

“Hamabost urte inguru nituenean Punktapie taldea sortu genuen eta hura izan zen abiapuntua eta oinarria. Gero, kuriositateak eraginda, beste musika-mota batzuk ezagutu genituen. Handik hiru urtera, musika elektronikoaren munduan sartu nintzen buru-belarri. Garai hartan oso jende gutxi pintxatzen zuen musika herrian: Asik, Gordik... Hasiera zaila izan zen. Bailarako tabernetan hasi nintzen eta poliki-poliki joan nintzen diskoteketan sartzen. Urte batzuk egin nituen diskoteka eta tabernetan musika jartzen eta horrek Euskal Herriko beste areto batzuetako ateak zabaltu zizkidan. Baita Kantabria eta Errioxako diskoteka batzuetako ere. Orain dela lau urte Ibizan pintxatzera joan nintzen. Niretzako izan zen amets bat betetzea. lada, hil naiteke lasai (kar, kar, kar).

Esan nezake niri gustatzen zaidana dela ikustea jende guztia nire eritmorra dantzatzeko, jendearen euforia hori, baina nik uste dut gehien erakartzen nauena dela pintxatzen egotea. Hori ezin da esplikatu, bizi egin behar da. laz Aitor Rondak erakutsi zigun zer den tekno musika bizitzea, odolean eroatea. Bizitzeko modu bat da”.

# Polo Opuesto: rapak batu dituen bi lagun

Mikel Oregi 'Katxo' plazentziatarrak eta Martin Rekalde 'M.rek' eibartarrak, osatzen dute Polo Opuesto. Duela bi urte ezagutu zuten elkar Soraluzeko jaietan eta harrezkero elkarrekin rapeatzen dute. Uztailaren 27an kantatuko dute herrian, Gune Musik jaialdiaren barruan.

**Zuek nondik zaletu zineten rapera?**

M. O.: Beti gustatu izan zait. Madrildo lagun batek erakutsi zidan kantu bat eta gero idazten hasi nintzen.

M.R.: Ni txikitan hasi nintzen grafitiekin. Mundu horretan sartu nintzen eta hasi nintzen lagunekin rapa entzuten. Ni lehenengo prosan idazten hasi nintzen eta gero testu horiekin kantuak egiten.

**Noiz kantatu zenuten lehen aldiz publiko aurrean?**

M.O.: Orain dela bi urte, Eibarko San Juanetan, Areto tabernan.

M.R.: Nik aurretik ere kantatu nuen Areton, bakarrik. Behin lagun batek kantatu ostean mikroa laga zuen libre nahi zuenak kantatzeko eta ni igo nintzen kantatzera.

**Non kantatu izan duzue?**

M.O.: Eibarko tabernetan: Hirurok, Beleko, Ezdok...

M.R.: Belekokoia izan zen brutala. Rapeatu genuen Eibarko Renk-ek, Debako Desconocidok eta guk biok. Eta gero lagun batek teknoa ipini zuen.

**Zein hikuntzatan kantatzen duzue?**

M.O.: Normalean gazteleraz kantatzen dugu baina euskeraz ere badugu kanturen bat.



Mikel Oregi eta Martin Rekalde. FERNAN OREGI.



Beleko tabernako saioa. MIKEL OREGI.

Gazteleraz jarraitzaile gehiago dago.

M.R.: Igual erreferenziengatik egiten dugu gazteleraz, ze guk rap dena gazteleraz entzuten dugu.

**Zein dira erreferentziak?**

M.O.: El Niño La Yuinta, Ayax & Prok... Kanta batzuk.

MARTINEK KRITIKA  
SOZIALAZ DIHARDU  
GEHIAGO ETA NIK  
EGUNEROKO BIZITZAZ

M.R.: Violadores del verso eta The Louk. Niri gustatzen zait denetik entzutea, batzuetan mezuak dauka indar gehiago eta bestetan erritmoak. Euskarazkoa, Glaukoma.

**Zuek zein gai lantzen dituzue kantuetan?**

M.O.: Martinek gehiago dihardu kritika sozialaz eta nik gehiago nire eguneroko bizitzaz: nire lagunak, zer egiten dudan egunerokoan, zer gustatuko litzaidaken izatea...

M.R.: Nirea gehiago da politikeoa. Nire idealak, baloreak... Horrek inspiratzen nau. Baina eguneroko gauzak ere bai, ez dugu idazten filosofiko libururik ere.

**Mezua zein da?**

M.R.: Norberak norbera izan behar duela momentuko moden gaintik.

M.O.: Ni, segun eguna, heltzen naiz lokalera eta hasten naiz notak idazten mobilean: etxera bidean kantu bat idazten...



Oihana Kortazan helmugan sartu zen unea. ANDER PASTORIZA.

## Kortazarrek marka ondu du

Domekan, Oihana Kortazarrek 8 minutu eta 7 segundotan ondu zuen Iñaki Ruizen mendi lasterketako emakumezkoen marka.

David Garcia durangarra eta Oihana Kortazar elgetarra izan ziren bizkorrenak lasterketaren VIII. edizioan. Durangarrak 1:41:00-ko denbora behar izan zuen. Bere herrikide Oier Arizanabarretak lehen edizioan

ezarri zuen marka baino (1:35:26) 6 minutu gehiago.

Elgetarrak, ostera, lehen edizio hartan bertan Aitziber Ibarbia zizurkildarrak ezarri zuen marka ondu zuen, 8 minutu eta 7 segundotan

hobetuz. Emakumezkoen marka berria 1:48:17 da.

### Soraluzetarrek sailkapenean

Lehenengo soraluzetarra eta sailkapen orokorreko 3.a, Ander De Luis izan zen, 1:44:12ko denborarekin. Haren atzetik, 4 minutu eta 3 segundura, helmugaratu zen Iñaki Goenaga.

Ondorengoak izan ziten soraluzetarren denborak sailkapen orokorrean:

3. 01:44:12. Ander de Luis
4. 01:48:15. Iñaki Goenaga
13. 01:56:19. David Rascon
19. 02:00:22. Gaizka Azkarate
22. 02:01:20. Joseba Garcia
24. 02:01:45. Julian Fernandez
31. 02:06:52. Unai Muñoz
32. 02:06:52. Jokin Muñoz
35. 02:07:29. Abdelmalik

### Samadi

38. 02:08:16. Raul Luis
45. 02:10:58. Iker Benito
53. 02:19:04. Ander Iribe
58. 02:20:26. Patxi Osa
68. 02:26:56. Ximun Larrañaga
72. 02:31:46. Aitor Prieto
78. 02:34:49. Gonzalo Ariznabarreta
80. 02:35:39. Iker Uzin
87. 03:13:36. Javier Gabilondo

## Coloma nagusi 41 jasoaldirekin

Lau harrijasotzaile gaztek parte hartu zuten San Andresko Harria txapelketan eta Mateo Coloma donostiarrak jantzi zuen txapela, 41 jasoaldi emanda. Bigarren gelditu zen Jon Gisasola mallabiarra 38 jasoaldirekin; hirugarren, Gorka Etxeberria oriotarra 37ekin; eta laugarren, Aritz Ureta ermuarra 29 jasoaldi emanda. Harmailak jendez beteta izan ziren.



# Fernandez eta Unanue garaile

Asier Fernandez eta eta Josu Unanue 22 eta 8 gailendu zitzaizkien Onar Muguruza eta Jokin Arrillagari finalean.

Markagailuak erakusten duen moduan, Fernandezek eta Unanuek nagusitasun handiz irabazi zuten partidua, nahiz eta pelotakada asko eta izerdia latz bota behar izan zuten partidua eurenganatzeko.

Hirugarren postua Gorka Ojeak eta Jurgi Rasconek eskuratu zuten 22 eta 17 irabazi ostean Beñat Catalan eta Ibai Tajueloren kontra.

Sariak banatu ostean, presoen dispersioa amaitu dadila eskatuz eta elkarbizitzaren

aldeko aldarria eginez, elkarrekin argazkia atera zuten.



Fernandez eta Unanue txapela jantzita.

# Umeen krosa izango da berriro

Hainbat gurasok horrela eskatuta erabaki du Soraluzeko Udalak atzera ere berreskuratzea Santiago eguneko Haurrentzako krosa

Sei lasterketa gauzatuko dituzte eguenean, 11:30etik aurrera ingo den Haurrentzako Krosean, Plaza Zaharrean.

Adinaren arabera banatuta, 2-4 urte bitarteko neska-mutikoak abiatuko dira lehenengo; 5-6 urteko korrikalariak, ondoren; 7-8 urtekoak izango dira gero; 9-10 urtekoak azken-aurreko eta 11-12 urteko neska-mutikoen lasterketa izango da, berriz, azkena.

## Sariak guztiendako

Ibilbideak ere desberdinak izango dira, adinaren arabera: 2-8 urtekoek Plaza Zaharretik Kontzejuperaino jo beharko dute eta han buelta hartu. Gainontzekoek, berriz, Txurixtu pastelerian hartu beharko dute buelta. Hori bai, sariak denondako izango dira: domina bana parte-hartzeagatik eta garaikurrak lasterketa bakoitzeko lehen hiru neska eta mutil irabazleei.

## Osoro nagusitu zen boletan

Elgoibartarrak zortzi txirlo botata eskuratu zuen garaipena San Andresen eta sailkapena honela gelditu zen:

1. Imanol Osoro (8 txirlo)
2. Unai Larreategi (8 txirlo)
3. Victor Rodriguez (7 txirlo)
4. Eta lehen auzotarra: Juanjo Eguren (7 txirlo)

J.K. Arizagaren esanetan "aspaldiko parte hartzailerik gehien" izan ziren: 55 inguru.



Imanol Osoro. FERNAN OREGI.

## Futbol zarpiko finala zapatuan

Joan zen zapatuan jokatu zituzten futbol 7 txapelketako finalaurrekoak: Kosto de Marfil-ek Hamalauak-en kontra eta Maravillas-ek Spool Team-en kontra.

Azkenean, Kosto de Marfil eta Maravillasek lortu dituzte finalerako txartelak eta datorren zapatuan eurek jokatu dute finala, 18:30etan, Ezozin.



Broken Brothers Brass Band taldea, eta aurrean Jon Celestino tronpeta-jolea.

# "Besta txikia antolatuko dugu"

JON CELESTINO TRONPETA-JOLEA

Broken Brothers Brass Band taldeak New Orleanseko gaur egungo taldeen hots kaletarrak ditu oinarri, jai-girokoak. Iruñeakoak dira kide gehienak, tartean berbalagun izan dugun Jon Celestino tronpeta-jolea. Uztailaren 25ean etorriko dira eta haiekin hitz egin dugu.

**Zer egiteko asmoa duzue Soraluzen?**

Besta txiki bat antolatu. Kalea girotzea eta jendea gurera ekartzea nahi dugu. Eramango ditugu kantu propioak eta New Orleanseko hainbat talderen kantuak. Inprobisazio dezente ere egongo da, jazzak eta funkak eskatzen duen moduan, eta jendearekin interakzioa bilatuko dugu.

**Zer da zuentzat jendearekin interakzioa bilatzea?**

Ez dugu nahi ikuskizun bat eman, non jendea geldi dagoen gu ikusten. Bilatzen duguna da

jendearen partaidetza, datorrena, nahi duen moduan, kantuan, dantzan... aritzea nahi dugu, ez gara ikuskizun hutsa.

**Hori dena zerekin janzten duzue?**

Baditugu haize instrumentuak eta perkusioak: tronpetak, tronboiak eta tubak, eta bi perkusio handi (bonboa eta kaxa normalean), eta gure ahots indartsuak (barre).

**Zenbat lagun zarete?**

9-10 inguru izaten gara. Bestarik ez badago, gure kaxa ere egiten dugu besta.

**Berri Txarrak kontzertuan parte hartu zenuten, ezta?**

Bai, ohore handia izan da guretzat. Soraluzen egon ondoren Donostiako Jazzaldira ere bagoaz. Gainera, gure lau diskoak Errabalen eskutik atera dira, beraz Soraluze da gure etxeetako bat. Jotzen behin bakarrik izan gara, baina Xarra eta Ubanerekin askotan.

## Fito y los Fitipaldi taldea bizi-bizi

Astelehenean, gauerditik gertu hasiko du ekitaldia Willson and Willsonetis cover bandak. Fito y los Fitipaldis taldeari egingo die tributo, Bilboko abeslari eta gitarra-jole Adolfo Cabrales Fitoren diskografiako kantu ezagunenak interpretatuz. Kritika onek lagunduta datoz Soraluzera. 23:30ean Plaza Zaharrean da hitzordua.



Willson saxofoiarekin.

## Dantza nortasun berritzailearekin

Eskarmentu handiko Allur dantza-taldeak ikuskizuna eskainiko du Plaza Zaharrean, zapatuan 20:00etan. Oinarri tradizioaletik abiatuta, nortasun berritzailea lortu duen taldea da Allur. "Dantza tradizional, klasiko eta garaikideak elkartu eta horiek gure musika, erritmo eta jantzieta eramaten ditugu".



# Asteburuko kontzertuak

**DEUS EZ**  
SHERPAK  
TOUR  
Uztailak 19  
**ARRANO TABERNA**  
SORALUZE  
**19:30H**

**ROY VELOCES**  
ZUTWEAR  
UZTAILAK 19 SORALUZE  
GAZTELUPE 20:30ETAN

**Soraluzeko zubian**  
Zentroko terrazan

JOHN BREEN & ESTHER GABIOLA  
**THE HUMAN BEANS**  
*Musika eta giro ona:  
Folk berri amerikarra, irlandarra,  
"chanson" frantsesa etab.*  
Uztailaren 21ean, igandean  
13:00etan,  
**ZENTROKO TERRAZAN**  
SANTA ANA KALEA, SORALUZE

# EDURTZA

kafetegia

Ogitartekoak, razioak,  
hanburgesak eta pintxoak  
Patata tortilak egiten dira enkarguz

## gozatu jaietan!

Santa Ana 18  
Tel. 943 47 80 08

# Danborradaren bigarren aldia

DANBORRADAK 1997EAN BERRESKURATU ZUTEN 'BETI PREST' TALDEKOEK

**TESTUA:** UBANE MADERA

IRUDIAK: RENATO ARIZNABARRETAREN  
BIDEOTIK

Aurten jaietan danborradarik izango ez dela eta, atzera begiratu nahi izan dugu, danborradaren bigarren aldia ezagutzeko.

1997. urtera jo beharra dago horretarako, orduantxe hasi baitzen danborradaren bigarren aldia. Inauterietan, danborrada mozerro modura hartu ondoren, Soraluzekeo Beti Prest aisialdi-taldearen

bultzadaz, umen danborrada sortu zuten (Jose Gilek, Roman Maiztegi, Lorea Elizburuk, Itziar Agirrek, Elena Cadenasek...). Nagusienaz, berriz, Aitor Gil, Iñaki Larrañaga... arduratu ziren, Beti Presten laguntzaz.

Renato Ariznabarretaren grabaziotik ateratako irudiak dira segidan daudenak, Danborradako batzordeak lokalean gordeta zituenak. Izan ere, 1997ko jaietako irudien artean daude bi danborraden irudiak.

## Aurpegi ezagunak

Orduko hartan, jaien aurreko entseguak goiko eskolako patioan egiten zituzten, eta Pedro Etxaniz zen zuzendari nagusia. Umeen danborradarekin, berriz, Alberto Alberdi txistulari eibartarra arduratzen zen, berak zuzenezten zuen taldea.

Osterantzean, dagoeneko Galtzagorrien txarangan ziren, gaur egun musikari lotuta jarraitzen duten hainbat herritar ezagun: Domentx Uzin, Unai Larreategi eta Nagore Sanz, besteak beste.



**ARRANO**  
taberna  
Etan! eta gazta  
etxeko pintxoak



Etibarua 6  
Telefonoa 943 75 24 01

**Belarrak**  
lana eta  
belardenda



Elkagai ekologikoak  
Etxerako zerbitzua  
Santa Ana 22  
943 75 30 11



**TXURRUKA**  
JATETXEA

Sukalde  
tradizionala  
Eguneko menua  
Asteburuetako  
menu berezia  
Karta  
www.txurruka.com  
Tel.: 943 75 15 81



**ELIZPE**  
HORTZ KLINIKA

Zure genako hartz klinika,  
puntu puntako teknologian lan  
egiten dugu. Cad-Cam sistema  
bentzikatu erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea  
SORALUZE  
Tel: 943 75 25 67  
e-mail: elizpe1@gmail.com

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera  
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00



**SUMA**  
basolanak

TMUG, 635 71 34 08

*baso garbiketarak eta entresakarak*  
zortzi laguneko taldea zure zerbitzura



**Kontulan**  
aholkularitza  
ABOKATUAK

Errenta, altopenak - Administrazioa lanak  
Trafiko burokrasia - Lan-arloko aholkularitza  
Enpresen konstituzio/eboluzioak - Kontabilitatea

Santa Ana 13 - 1. esk. 20590 Sorluze  
Tel: 943 75 17 82 / Fax: 943 75 01 82

**REIKI** Maria Etxabe  
699 699 795

Energiak zure  
hitzek baino  
aizenago erabiltzen  
du berba beti



**IZXGUIRRE**  
Igeltzeritza

Erakin berriak - Kalitatezko emaitza  
Erreformat - Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913 - 640 867 289




**Txoko**

Eguneko menua,  
plater konbinatuak,  
harburuenak,  
ogitarikoaak,  
razoiak, pizzak,  
gozarria...  
Enkarguak  
egiten dira

Tel. 943 75 17 89



**Hortz klinika**

Erreal 1  
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso  
Mediku Estomatologoa  
K.Z. 48.000.550

Katia Gustin  
Odontologoa  
K.Z. 48.001.541

27 urteko esperientzia  
odontologia, protesiak,  
odontopediatria, ortodontia,  
implanteak, estetika...  
Zerbitzu radiologiko orokorra (30):  
ekianema, orto eta tele.



Jatearen plazarrera, bertatik bertara

**Batzoki**

eguneko menua  
antzerkizko  
karta eta rairoak

egitarikoa eta  
harburuenak  
enkargu bereziak

Sinple eta  
luzak antzerki  
burkariak

Donostia, 943 75 20 50



**KLB6**

Kalebarren 6  
943 67 21 26

Mulero-erretzen  
modu guzietan

Facebook  
www.kalb6.com

Pepe Jarama  
ISOLID  
VERO MODA



**FOGASLER**  
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Sorluze) - 943 71 82 49 (Oñati)  
fogasleriturgintza@gmail.com



**MENDIZABAL**  
okindegia

Ogia - Prentsa - Gozarrik

Astelehenetik  
ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00

Larunbatak eta  
igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99



Euskalzaletasunaren alde:



# Txistua ozenago entzuten da

GAZTEAK SARTU DIRA ETA TXISTULARI TALDEA INDARTU EGIN DA

**TESTUA** UBANE MADERA

ARGAZKIAK: TXISTULARI-TALDEA ETA U.M.

Jaiek berezkoa duten doinuetako bat da txistuaren hotsa. Azken boladan, gainera, indartsuago entzuten den doinuetako bat da. Izan ere, ahalegin berezia egin dute txistulari-taldeak lehenago izan duen sendotasuna berreskuratzeko. Horren emaitza da gero eta osasuntsuago dagoen Soraluzeko txistulari-taldea.

Gaur gaurkoz, kideak sei dira: Domentx Uzin, Elene Etxaniz, Edurne Orbea, Igone Mendizabal, Ane Osoro eta Sabin Perez de Labeaga. "Eta "sateliteak" ere badaude, txistulari beteteranoak, ospakizun jakin batzuetan etortzen direnak: Ander Garitano, Ezosi Arrillaga, Imanol Lopez, Jesus Orbea, Jose Angel Basauri, Juanjo Arrieta eta aurten Isma Peñalba, Ander Epelde eta Aitor Amor ere animatu dira", dio Domentx Uzinek.

## Mikel Santiago eta Domentx Uzin

Hain justu, Uzin bera izan da taldeari bultzada eman dion kideetako bat. Instrumentua jotzen ikasteraino "tematu" zen ahalegin horretan, eta baita lortu ere: "Ez da egon txistu-taldean etenaldirik, nahiz eta dantza-taldekoak joan izan diren kanpora txistulari barik. Baina kinka larrian egon da. 2011n Kataluniatik etorri



Txistulariak Ezoziko erromeriara bidean, aurten.

nintzenean, jakin genuen azken txistu ikaslea desapuntatu egin zela musika-eskolatik, eta orduan Mikel Santiago eta neu ados ipini ginen taldeari bultzada emateko. Ahaleginaren "erantzule" dantza-taldekoak ere izan ziren. Kontuak kontu, txistua erosi nuen, eta txistua ikasten daramatzat bost urte, Arrasateko musika-eskolan". Jakintza hartuta, bada, hurrengo pausoa taldea elkartzea izan zen: "Egin zen ahalegin handia lehen Txistu-dantza egunerako. Herriko txistularien zerrenda osatu genuen eta lehen Txistu-dantza egunean (2012) asko elkartu ginen". Harrezkero, sortutako taldeak buru-belarri dihardu. Bost belaunaldi elkartzen dira eta gustura ari dira beteteranoak eta gazteak elkarrekin.

## Taldekide berriak nahi

Elene Etxaniz (Soraluze, 2002) da taldera batu den txistularirik gazteena, familiako tradizioari jarraituz: "Domentx ezagutzen nuen, aitaita eta tia txistulariak dira, aitaren partetik ere bizpahiru tio txistulari ziren... Gogoan nuen beste instrumentu bat ikasteko eta urte eta erdi daramat taldean".

Urte eta erdi darama Ane Osorok (Soraluze, 1991) ere, nahiz eta eskarmentua baduen lehenagotik: "2003-2004an hasi nintzen euskal jaietara joaten (musika-eskolan aritzen ginenak joaten ginen). Gero herrira itzuli nintzenean, Domentxekin komentatu nuen txistua berriro jotzearena eta orain taldean nago".

Beteranoei dagokienez, berriz, Edurne Orbeak (Soraluze, 1971) Ezoziko

## Zer ematen dizu txistuak?

"Ines Marirekin batera, bere garaian txistulari-taldea izan zen Soralezeko beste musikatalde garrantzitsuena, musika ikasteko eta bide bat egiteko". Domentx Uzinek egindako erretratutik ia desagertzearaino ailegatu zen Soralezeko txistulari taldea. Orain berau osatzen duten eta gure solaskide izan diren bost lagunei galdetu diegu zein arrazoiz izan duten taldeko kide izateko ala izatera bueltatzeko.



**Elene Etxaniz**

Txistulari taldean giro polita dago, kalejirekin ere giro polita sortzen da herrian. Eta jende berria ezagutzen da.



**Domentx Uzin**

Gure jai edo ospakizunetan beharrezkoa da. Ilusioa egiten dit txistuaren hotsa egoteak herriko kulturen oso presente.



**Ane Osoro**

Ematen dizu konpainia, eta elkartzea bestela elkartzen ez zaren jendearekin, aberasgarria da, eta sortzen da lagunartea.



**Edurne Orbea**

Ekintza bakoitzean ematen dizu esperientzia aberasgarria. Jendea ezagutu, elkarri lagundu, elkarrengandik ikasi...



**Igone Mendizabal**

Txistulariok jotzen dugu guretzat, baina nahi dugu jendeak gurekin disfrutatzea. Hori bai, guk disfrutatzen dugu gehien".

erromeria batean sumatu zuen "deia": "Mikel Santiagori txistua eskatu nion eta han egon ginen, batzuk kantatzen eta neu txistua jotzen. Orduan harra sartu zitzaidan berriro, eta erabaki genuen zerbait egin behar genuela. Domentx ere bazezilen eta neu ere animatu nintzen lehen Txistu-dantza antolatzerara. Hori izan zen itzulera".

Igone Mendizabal (Soraluze, 1971) ere 2012an bueltatu zen: "Txistu-dantza egunerako gonbitea jasota; umea ere

dantza-taldean dabil, eta azken batean nahi duzu umetako bizipenak zure seme-alabek ere izatea; horrela bueltatu nintzen".

Taldea egituratuta, bada, hura sendotzea eta gazteak

**IMANOL LOPEZEN 'NIRE PLAZENTZIATXO' ETA 'ATXOLIN' JOKO DITUZTE UZTAILAREN 26AN 12:00ETAN PLAZAN**


erakartzea da helburua. Hala ere, eta jakinda Soraluzen txistulari ohi asko dagoela, horiek gonbidatu nahi dituzte: "Uste dut txistuarekin gozatu duena gustura etorriko litzatekeela. Da pausoa ematea. Ahal denean, nahi duenak jotzea, ez dago konpromisorik. Baina Plazentzian askok ikasi du txistua jotzen. Beraz, norbaitek gogoia badu, etor dadila, ez du gonbidapen beharrik. Jende gehiago balego taldean, erakargarriagoa ere bihurtuko litzateke".

## ZERBITZUAK

---

### ZORION AGURRAK

---



**Eneko eta Ariene Baglietto**

Uztailaren 20an eta 25ean, 35 eta 4 urte!  
Zorionak! Pilo bat maitte zaittuztegu. Segi  
zarien bezelakuak izaten! Matxe matxe! Intza  
eta aman partez!



**Laida Sanchez**

Uztailaren 21ean, 8  
urte. Zorionak!  
Etxekoen partez.



**Itziar Agirre**

Abuztuaren 15ean,  
46 urte. Zorionak!  
Etxekoen partez.



**Irati Calles eta Maren Agirre**

Uztailaren 23an eta abuztuaren 14an 8 urte.  
Zorionak bikote! Etxekoen partez.



**Aitziber Atxa, Ezosi Arrillaga, Irantzu Sanz  
eta Txaro Perez**

Abuztuaren 6an; uztailaren 17an, uztailaren  
19an eta abuztuaren 28an, 46 urte!!! A ze lore  
festa! Zorionak danoi, merezi dozue-ta!  
Kuadrillia.




**Oiher Arantzeta eta Joannes Arantzeta**

Uztailaren 9an, 46 urte eta abuztuaren 8an, 7  
urte. Zorionak, etxeko guztien partez. Asko  
maitxe zaittuztegu!!!



**Hasier de los Rios**

Abuztuaren 7an, 46  
urte. Zorionak,  
kirolari! Primeran  
pasatu! Kuadrillia.



**Ander Gallardo eta Leire Ariznabarreta**

Abuztuaren 3an, 8 urte eta abuztuaren 9an, 38  
urte. Zorionak etxeko danon, Mikelen eta  
lagunen partetik! Ondo pasau!

---

### JAI OBERRIAK

---



**Ibai Soriano Sebal**

Ekainaren 27an jaio zen.

---

### OHARRAK

---

**San Andresko zozketa**

1. Otarra. Zerbaki saritua:  
1706. Irabazlea: Manex  
Arrieta.
2. Jatordua Txurrukan. Zerbaki  
saritua: 0958 (ordezkoa:  
2213). Oraindik ez da  
irabazlerik azaldu.

# GOKI

erreformak



## **FATXADA BIRGAITZEAK**

**S.A.T.E.**  
FATXADA AIREZTATUAK  
BIRGAITZE TRADIZIONALA  
BALKOIEN BIRGAITZEA



## **ESTALKI ETA TEILATUAK**

ERABATEKO BIRGAITZEAK  
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK  
MANTENTZE LANAK  
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



## **BARNE ERREFORMAK**

ETXEBIZITZAK  
LOKAL KOMERTZIALAK  
BULEGO ETA ENPRESAK  
SUKALDE ETA BAINUGELAK



## **IRISGARRITASUNA**

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA  
IGOGAILU INSTALAZIOAK  
0 KOTA



## **BULEGO TEKNIKOA**

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA  
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK  
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR  
943 74 42 23

SORALUZE  
943 12 57 41

BERGARA  
943 76 53 42



# EIBAR

HORTZ KLINIKA  
CLÍNICA DENTAL

📍 *ESKERRIK ASKO!* 😊

Kontsultara etortzen zareten paziente guztioi proiektu hau posible egiteagatik: **Gure lantalde profesionala eta instalazioak handitu ditugu zerbitzu hobea eskaintzeko.**

Ilusioz eta bokazioz sortutako egitasmoa, beti kalitatezko odontologia baten alde.

*Ondo pasa  
Jaixetan!!*

🏠 San Agustin Kalea, 4 Behea Ezkerra  
20600 Eibar (Gipuzkoa)

☎ 943 537 076 - 688 884 808

✉ [info@eibarclinicadental.com](mailto:info@eibarclinicadental.com)